



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 17a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Foru parlamentariak hautatzea, Diputatuen Kongresuan defendatuko dutenak Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duen lege proposamena (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, txertaketa-egutegi ofizialeko haur-txertoen hornikuntzarik ez egoteari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako sinboloei buruzko Lege indarduna indargabetzeari buruz lau alderdiek egindako iragarpenari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Behaketa eta Harrera Zentroko 18 postu, Oinarritzko Egoitza-harrerako 18 postu, Egoitza-harrera Espezializatuko 8 postu eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen jarraipena egiteko 10 postu kudeatzeko laguntza-kontratuari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (5. or.).
- Galdera, administrazio publikoetako energia-kontsumo oso-osoa energia berriztagarrien bidez egiteko aukera aztertzeak akordioari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Elkarriketa Sozialaren Kontseiluaren egungo eskumenak eta eginkizunak aldatzeko edo/eta bideratzeko neurriari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, barne-merkatuan informazio eta sustapen jarduerak egiteko deialdiak atzeratzeak kontseilu arau-emaile bakoitzarentzat izandako ondorioei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (7. or.).
- Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko profesionalen ordutegia aldatzeari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoan legionella neumofiloa egoteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, dislexia duten ikasleei buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (9. or.).

- Galdera, untxiek Ebro ibaiaren eskuineko ibaiertzean egindako kalteak nola murriztu aztertzeko lan-taldeari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programatik irtetea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programa ezartzea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako eremu ez euskaldunean D eredia ezartze aldera erreferentzia-zentroetan deitutako bilerei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, ikastetxeetan transexualitateari buruzko protokoloa taxutzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Ministerioak azken ebaluazioak direla-eta deitutako bilerara ez joateko Hezkuntzako kontseilariak izan zuen arrazoiari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).
- Galdera, Esako presan detektatutako mugimenduei buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).
- Galdera, merezimendu gisa euskaraz jakiteari puntu gehiago emateari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Foru parlamentariak hautatzea, Diputatuen Kongresuan defendatuko dutenak Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duen lege proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina –azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia– aldatzen duen lege proposamena Diputatuen Kongresuan defendatu behar duten foru parlamentarien inguruko proposamenak egin dituzte Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, zeinek ekimena aurkeztu baitzuten, eta Eledunen Batzarrak. Horri dagokionez, eta Konstituzioaren 87.2 artikuluan, Erregelamenduaren 205. artikuluan eta Mahaiaren 2005eko ekainaren 6ko Erabakiaren bidez onetsiriko arauetan xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. Foru parlamentari hauek hautatzea Diputatuen Kongresuan defendatzeko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta

beste lege osagarri batzuen testu bategina –azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia– aldatzen duen lege proposamena:

José Javier Esparza Abaurrea jauna (Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldea).

Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna (Geroa Bai parlamentu-taldea).

María Victoria Chivite Navascués andrea (Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea).

2. Erabaki hau Diputatuen Kongresuko Mahaiari igortzea, Diputatuen Kongresuko Erregelamenduaren 124. artikulua eskaturiko aurrekariekin batera.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, txertaketa-egutegi ofizialeko haur-txertoen hornikuntzarik ez egoteari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, txertaketa-egutegi ofizialeko haur-txertoen hornikuntzarik ez egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Txerto-egutegi ofizialeko haur-txertoen hornikuntzarik ez dagoela ikusita, noiz arte egonen dira haurrak txertorik jarri gabe? Departamentuak zer aurreikuspen darabil?

Iruñean, 2017ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Nafarroako sinboloei buruzko Lege indarduna indargabetzeari buruz lau alderdiek egindako iragarpenari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako sinboloei buruzko Lege indarduna indargabetzeari buruz lau alderdiek egindako iragarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Nafarroako sinboloei buruzko Lege indarduna indargabetzeari buruz lau alderdiek egindako iragarpenari buruz? Zein da zure proposamena lege berri bat taxutzeari begira?

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Behaketa eta Harrera Zentroko 18 postu, Oinarrizko Egoitza-harrerako 18 postu, Egoitza-harrera Espezializatuko 8 postu eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen jarraipena egiteko 10 postu kudeatzeko laguntza-kontratuari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Behaketa eta Harrera Zentroko 18 postu, Oinarrizko Egoitza-harrerako 18 postu, Egoitza-harrera Espezializatuko 8 postu eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen jarraipena egiteko 10 postu kudeatzeko laguntza-kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

– Zertan da Behaketa eta Harrera Zentroko 18 postu, Oinarrizko Egoitza-harrerako 18 postu, Egoitza-harrera Espezializatuko 8 postu eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen jarraipena egiteko 10 postu kudeatzeko laguntza-kontratuaren lizitazioa?

– Esleitu al da? Esleitu baldin bada, zer baldintza ekonomikotan esleitu da?

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, administrazio publikoetako energia-kontsumo oso-osoa energia berriztagarrien bidez egiteko aukera aztertzeako akordioari buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, administrazio publikoetako energia-kontsumo oso-osoa energia berriztagarrien bidez egiteko aukera aztertzeako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxi-

kitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2017rako aurrekontuen foru lege proiektuaren negoziazioan zehar konturatu ahal izan ginen diru askoko kontu-sail ugari daudela Administrazio Publikoaren energia-kontsumoari buruzkoak. Gauzak horrela, lau alderdiek erabaki genuen kontsumo hori energia berriztagarrien bidez soilik egiteko aukera aztertuko zela.

Zertan da akordio hori? Kontsumo hori energia berriztagarrien kontsumo- eta ekoizpen-kooperatiben bidez egiteko modurik egonen al litzateke?

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroako Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren egungo eskumenak eta eginkizunak aldatzeko edo/eta bideratzeko neurriei buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren egungo eskumenak eta eginkizunak aldatzeko edo/eta bideratzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxi-

kitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarri nahi ditu Nafarroako Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren egungo eskumenak eta eginkizunak aldatzeko edo beste organo anitzago batera, zeinetan ukitutako alde guztiak ordezkatuta egonen baitira, bideratzeko? Gobernuaren ustez, egokia al litzateke eskumen eta eginkizun horiek Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari eskualdatzea eta hori arautzen duen legea aldatzea, horren organoetan enpresa, sindikatu eta gizarte zibilaren arloetako elkarte guztiak ordezkatuta egotea bermatzeko?

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamorro

Galdera, barne-merkatuan informazio eta sustapen jarduerak egiteko deialdiak atzeratzeak kontseilu arau-emaile bakoitzarentzat izandako ondorioei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, barne-merkatuan informazio eta sustapen jarduerak egiteko deialdiak atzeratzeak kontseilu arau-emaile bakoitzarentzat izandako ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Barne-merkatuan informazio eta sustapen jarduerak egiteko deialdiak 2016ko ekainean eta abenduan egin ziren, eta horrek hainbat ondorio ekarri ditu deialdi horiei atxikitzen ahal zaizkien kontseilu arau-emaileei dagokienez.

Zein izan da atzerapen horren arrazoia?

Zer ondorio ekarri dio kontseilu arau-emaile bakoitzari? Gobernuak zer egingen du hori dela eta?

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Koloneko minbiziaren baheketa-programaren barruan, zein da lehen eta bigarren faseen kronograma?

– Zein da lehen eta bigarren faseen betetze-maila Nafarroako eskualde guztietan eta herriz herri?

Iruñean, 2017ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko profesionalen ordutegia aldatzeari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko profesionalen ordutegia aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Reina Sofía Ospitalean aldatu egin da profesionalen lan-ordutegia:

– Aldaketak zerbitzu guztietako profesional guztiei eragiten al die? Nori?

– Departamentuak zer ordain emanen die profesional horiei? Baldin eta ordainketa hori egun libreak emanez egiten bada, profesional horiek ordezkatu egingen al dira?

– Profesionalen agendetan aldaketarik egingen al da, gaixoei osasun-laguntza hobea emateko? Zein?

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoan legionella neumofiloa egoteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoan legionella neumofiloa egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta

hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Jakin izan dugunez, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ikastetxean legionella neumofiloaren presentzia detektatu da ohiko kontrol batean. Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditugu, idatziz erantzun dakien:

1.- Zer egunetan detektatu zen legionella neumofiloaren presentzia ikastetxeko ur-sarean?

2.- Noiz jakinarazi zitzaizen ikastetxeari, profesionali eta ikasleen familiei?

3.- Hau bezalako egoerei aurre egite aldera Nafarroako Gobernuak ezarririk daukan protokoloa eta inguruabarrak.

4.-Ikastetxean lan egiten duten profesionali eta bertako ikasleei begira egon daitezkeen arriskuak.

5.- Nafarroako Gobernuak arrisku horiek direla-eta hartuko dituen neurriak eta egiten duen jarraipena.

Corellan, 2017ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, dislexia duten ikasleei buruzkoa.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, dislexia duten ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat ikaslek dute dislexia, zikloka, eredu eta ikastetxe publikoetakoak edo itunpekoetakoak diren aintzat hartuta?

Iruñean, 2017ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz

Galdera, untxiek Ebro ibaiaren eskuineko ibaiertzean egindako kalteak nola murriztu aztertzeke lan-taldeari buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, untxiek Ebro ibaiaren eskuineko ibaiertzean egindako kalteak nola murriztu aztertzeke lan-taldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak 2016ko maiatzaren 13an iragarri zuen lantalde bat sortuko zuela, aztertzeke nola murriztu untxiek Ebro ibaiaren eskuineko ibaiertzean egindako kalteak, zeinak 782.000 eurokoak izan baitziren 2015ean. Kalteturik, 1.674 lurzatitako 2.100 hektarea suertatu ziren; batik bat, zerealenak eta baratzetakoak.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzutea nahi dugu:

– Nork osatzen du lantalde hori?

– Zenbat bilera eta noiz egin dira?

– Zer ondorio atera da bilera horietatik?

– Lantalde horrek proposatutako neurririk hartu al da?

Baiezkoan, zehaztu zer neurri izan den hori eta zein izan den emaitza.

– Gobernu honen ustez, lantalde hori 2008an sortutako “untxiaren mahaia” izenekoaren ordezkotzat har daiteke, edo haren osagarri izan daiteke?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programatik irtetea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programatik irtetea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Nafarroako zer ikastetxek eskatu diote Hezkuntza Departamentuari Atzerriko Hizkuntzen Ikaskuntzako Programatik irtetea?

Corellan, 2017ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programa ezartzea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programa ezartzea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Nafarroako zer ikastetxek eskatu diote Hezkuntza Departamentuari ikastetxe horietan Atzerriko Hizkuntzen Ikaskuntzako Programa ezartzea?

– Departamentuak zer laguntza eta aholkulartza emanen du ezarpen hori dela-eta?

– Zer neurri hartuko dira ezarpen hori egiten denean ikastetxe bakoitzean hizkuntza-gaitasuna duten irakasleak egon daitezten?

Corellan, 2017ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

2016ko otsailaren 11ko Osoko Bilkuran mozio bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatu baitzen lan-mahai bat sor dezan, Uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko.

Mozio horren bidez onetsi zen lan-mahai bat eratzea, uholde-arriskuari buruzko plan bereki bat lehenbailehen aurkeztea, eremu urperakorretan lan egitea, aseguru azkar eta zaluetan, ukitutako lurzati balio-galera baloratzea eta erabaki adostuak hartzea ibaiak garbitzeko eta mantentzeko, eta legarrak ateratzeko erabilera tradizionalak baimentzea.

Jada urtebete igarota, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzutea nahi dugu:

– Lan-mahaia eratu al da? Baiezkoan, zein egunetan eratu zen?

– Zer pertsona eta entitatek osatzen dute lan-mahaia?

– Zenbat bilera eta zein egunetan egin dira? Zeintzuk izan dira ateratako ondorioak?

– Aurkeztu al da uholde-arriskuari buruzko plan berekia? Aurkeztu baldin bada, horren kopia jaso nahi dugu.

– Lanik egin al da eremu urperakorretan, aseguru azkar eta zaluetan? Baloratu al da ukitutako lurzati balio-galera? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zein izan da lan horien emaitza?

– Zer erabaki hartu dira ibaiak garbitzeari eta mantentzeari dagokienez?

Iruñean, 2017ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, Nafarroako eremu ez euskaldunean D eredia ezartze aldera erreferentzia-zentroetan deitutako bilerei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako eremu ez euskaldunean D eredia ezartze aldera erreferentzia-zentroetan deitutako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

– Zer bilera deitu dira Nafarroako eremu ez euskaldunean D eredia ezartze aldera Hezkuntza Departamentuak ezarritako erreferentzia-ikasteetean?

Zehaztu eguna, ordua, herria, emandako informazioa, erabilitako materialak (grafikoak eta ikusizkoak), parte-hartzaileek eskatutako informazioa, eta bilera horietara bertaratu eta Nafarroako Gobernuaren ordezkari izan duten langileen izen-abizenak eta dauzkaten ardurak.

Corellan, 2017ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, ikastetxeetan transexualitateari buruzko protokoloa taxutzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxeetan transexualitateari buruzko protokoloa taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

– Hezkuntza Departamentuak zer kolektibori edo pertsonari eskatu dio bere iritzia Ikastetxeetako Transexualitate Protokoloa taxutzeko?

– Departamentuak iritzirik eskatu al dio guraso-elkarteren bati?

– Zer txosten juridikotan oinarrituta ezarri du "iragate-prozesua" delakoa, hori baimentzen edo

aholkatzen duen txosten mediko edo psikologikorik edo ebazpen judizialik izan gabe?

– Departamentuak baloratu al du zer egoeratan gelditzen diren adingabeak, baldin eta haien legezko ordezkariak ezetza ematen badiote protokoloan planteatutakoen gisako neurririk hartzeari?

– Gobernuak zer txosten juridikotan oinarrituta ezarri du prestakuntza eta aholkua helduekin nahitaez eman beharra, ardura hori hezkuntza-arloko inolako titulaziorik ez daukaten eta ikastetxeak ez diren profesionalei esleituta?

Corellan, 2017ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Ministerioak azken ebaluazioak direla-eta deitutako bilerara ez joateko Hezkuntzako kontseilariak izan zuen arrazoari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Ministerioak azken ebaluazioak direla-eta deitutako bilerara ez joateko Hezkuntzako kontseilariak izan zuen arra-

zoiari buruzkoa zen, eta 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Esako presan detektatutako mugimenduei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Esako presan detektatutako mugimenduei buruzkoa zen, eta

2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, merezimendu gisa euskaraz jakiteari puntu gehiago emateari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera merezimendu gisa euskaraz jakiteari puntu gehiago

emateari buruzkoa zen, eta 2017ko otsailaren 7ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

